



BATERAKO ZERBITZUAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

1. HELBURUA

Baldintza partikular hauek Baterako Zerbitzuan ezarri beharreko baldintzak zehaztea izango dute helburu. Baterako Zerbitzuan, batera kontratatuko dira Yoigok merkaturatutako telefonia zein banda zabal mugikorreko zerbitzuak (aurrerantzean, Zerbitzu Mugikorra) eta telefonia zein banda zabal finkoko zerbitzuak (aurrerantzean, Zerbitzu Finkoa). Bi zerbitzugintzak euren baldintza orokorren arabera arautuko dira; eta, horren osagarri, baldintza partikular hauetan xedatutakoaren arabera.

2. IRAUNKORTASUNA

Baterako Zerbitzua kontratatzean, bezeroak ez du iraunkortasunerako inolako konpromisorik hartu beharko. Edonola ere, Zerbitzu Finkoa eta Zerbitzu Mugikorra kontratatzean hartu ahal izan dituen iraunkortasun-konpromisoei eutsi beharko die. Horretarako, Baterako Zerbitzuaren modalitatetik hileko prezio txikiagoa daukan beste batera aldatuz gero, bezeroa kontsumo-konpromiso txikiagoa duen prezio-planera aldatu dela hartuko da kontuan iraunkortasun-konpromiso horien ondorioei begira.

3. PREZIOA ETA FAKTURAZIOA

Baterako Zerbitzuan eskainitako zerbitzu guztien ordainetan, kontratatutako modalitate zehatzean ezarri beharreko zenbatekoa ordaindu beharko du bezeroak. Zerbitzua kontratatzean, ezarri beharreko prezioei buruzko informazio guztia emango zaio bezeroari.

Kontratututako modalitate zehatzeko deien bonuak edo datuen frankiziak gaitututakoan, bezeroari prezioei buruz eman zaion informazioan adierazitako prezioak ezarriko dira.

Hilero, Zerbitzu Finkoko baldintza orokorretan eta Zerbitzu Mugikorreko baldintza orokorretan aurreikusitako baldintzen arabera Baterako Zerbitzuak eskainitako zerbitzu guztiak kontuan hartzen dituen faktura jasoko du bezeroak, eta bezeroak horretarako adierazitako kontu korrontean zordunduko da zenbatekoa.

4. LINEA GEHIGARRIAK

Fibra + Móvil tarifa daukan edo kontratatzen duen bezeroak %20ko deskontua lortu ahal izango du Baterako Zerbitzuko linea mugikor gehigarrietan. Deskontu hori hileko kuotaren gaineko %20koa izango da (zeharkako zergak barne), eta honako baldintza hauen arabera ezarriko da betiko:

- La Fibra + Móvil kontratatu ostean kontratatutako linea mugikorretan baino ez da ezarriko deskontua.
- Bezeroak La Fibra + Móvil tarifa baxa hartzen badu (bertako edozein zerbitzutan, hau da, zerbitzu finkoan nahiz zerbitzu mugikorrean), linea gehigarrietako deskontua galduko du.
- Bezeroak linea gehigarrietako tarifa aldatu ahal izango du, baina deskontuari eusteko, ezinbestekoa izango da tarifa berria kontratupeko tarifa izatea.

5. TARIFA MUGIKORRA OPARI, 'LA DE CASA' TARIFETAN

Edozein 'La de Casa' tarifa kontratatzean opari moduan emandako lineak nabigaziorako 500 MB eta minutuko 0 zentimoko deiak eskainiko ditu, eta alta hartzen denean bakarrik kontratatu ahal izango da. Bezeroak une horretan kontratatzen ez badu, ezin izango du geroago eskatu.

6. BATERAKO ZERBITZUKO BAJA

Honako kasu hauetan, baja emango da Baterako Zerbitzuan:

- Baja eskatzea edo Baterako Zerbitzua osatzen duten bi zerbitzuetako bat behin betiko etetea (Zerbitzu Finkoa edo Zerbitzu Mugikorra).
- Zerbitzu Finko edo Zerbitzu Mugikorreko titularra aldatzea.

Baterako Zerbitzuko Zerbitzu Mugikorrean baja hartzean bezeroak Zerbitzu Finkoari eutsi nahi badio, Zerbitzu Mugikorreko baja gertatzen deneko hilabete naturala amaitu baino lehen Yoigori adierazi beharko dio zer tarifa aukeratuko duen Zerbitzu Finkorako (une horretan Yoigok merkaturatzen dituen artean). Epe horretan, bezeroak ezer adierazten

ez badu, Baterako Zerbitzuaren osagai finkoaren antzeko ezaugarriak dituen tarifaren arabera fakturatuko da Zerbitzu Finkoa.

Baterako Zerbitzuko Zerbitzu Finkoan baja hartzean bezeroak Zerbitzu Mugikorri eutsi nahi badio, Zerbitzu Finkoko baja gertatzen deneko hilabete naturala amaitu baino lehen Yoigori adierazi beharko dio zer tarifa aukeratuko duen Zerbitzu Mugikorreko (une horretan Yoigok merkaturatzen dituen artean). Epe horretan, bezeroak ezer adierazten ez badu, Baterako Zerbitzuaren osagai mugikorren antzeko ezaugarriak dituen tarifaren arabera fakturatuko da Zerbitzu Mugikorra.